

# A2.1 MAILA

---

## ENTZUMENAREN TRANSKRIPZIOA.

### Lehenengo zatia.

**Kontxi Garmendia-** Arratsalde on.

**Kazetaria 1-** Zu ausartu omen zara biluztera. Oinak biluztera.

**Kontxi Garmendia** – Bai. Guztik biluzik eta baita sandaliek... Bai, baita, biak!

**Kazetaria 2-** Eta aspaldi jantzi zenituen sandaliak?

**Kontxi Garmendia** – Beno...

**Kazetaria 2** – Hasi zinen sandaliak janzten aspaldi, alegia?

**Kontxi Garmendia** – Bai. Beno, nik ia urte osoan, ahal bada, posible baldin badut erabiltzen ditut. Gero, ja(da), hotz handia egiten baldin badu, bai beno, bai botak edo zapatak janzten ditut. Baina posible denean, sandaliak, eta oso gustora. Eske nik orain ezin dut (ditut) jantzi zapata oso itxiak, edo, edo oso gogorrak, ja(da) ezin dut, behar dut, nire oinak arnasa, arnasa hartzea. Bestela gaizki pasatzen dut.

**Kazetaria 1-** Ze(ren) sandaliak erabiltzen dituzu zuk, esan duzu ia urte guztian zehar, lanerako edo kalerako, eta esan duzu korrika egiteko ere bai? Kirola egiteko ere bai?

**Kontxi Garmendia-** Bai, beno nik lanean zortea daukat, nire kontsulta da, beraz oinutsik egiten dut lana, eta, eta beno, kalean bai ba! Ibiltzeko askotan txankletak eta korrika egiteko ba txankleta hauek, adibidez, ba aproposak dira.

# A2.1 MAILA.

---

## ENTZUMENAREN ULERMENA.

**EGITEKOA:** Elkarrizketaren zati bat entzunda, galderen erantzun zuzena aukeratu.

1. Kontxiri gustatzen al zaio oinutsik ibiltzea?
    - Bai, gustatzen zaio, eta baita sandaliekkin ibiltzea ere.
    - Asko gustatzen zaio gorputza biluzik ibiltzea.
    - Ez zaio gehiegi gustatzen.
  2. Zergatik janzten ditu beti sandaliak?
    - Normalean hankak izerditan izaten dituelako.
    - Zapata itxiekkin urduri sentitzen delako.
    - Oinek arnasa hartzea nahi duelako.
  3. Bere kontsultan zein oinetako erabiltzen ditu?
    - Normalean txankletak erabiltzen ditu.
    - Normalean oinutsik ibiltzen da.
-

# A2.1 MAILA

---

## TRANSKRIPZIO OSOA

**Kazetaria 1-** Kontxi Garmendia, fisioterapeuta eta terapia kraneosakranean aditua. Arratsalde on!

**Kontxi Garmendia-** Arratsalde on!

**Kazetaria 1-** Zu ausartu omen zara biluztera. Oinak biluztera.

**Kontxi Garmendia-** Bai. Guztik biluzik eta baita sandaliek... Bai, baita, biak!

**Kazetaria 2-** Eta aspaldi jantzi zenituen sandaliak?

**Kontxi Garmendia-** Beno...

**Kazetaria 2-** Hasi zinen sandaliak janzten aspaldi, alegia?

**Kontxi Garmendia-** Bai. Beno, nik ia urte osoan, ahal bada, posible baldin badut erabiltzen ditut. Gero, ja(da), hotz handia egiten baldin badu, bai beno, bai botak edo zapatak janzten ditut. Baina posible denean, sandaliak, eta oso gustora. Eske nik orain ezin dut( ditut) jantzi zapato oso itxiak, edo, edo oso gogorak, ja(da) ezin dut, behar dut, nire oinak arnasa, arnasa hartzen. Bestela gaizki pasatzen da.

**Kazetaria 1-** Ze(ren) sandaliak erabiltzen dituzu zuk, esan duzu ia urte guztian zehar, lanerako edo kalerako, eta esan duzu korrika egiteko ere bai? Kirola egiteko ere bai?

**Kontxi Garmendia-** Bai, beno nik lanean zortea daukat, nire kontsulta da, beraz oinutsik egiten dut lan, eta, eta beno, kalean bai ba! Ibiltzeko askotan txankletak, eta korrika egiteko ba txankleta hauek, adibidez, ba aproposak dira.

**Kazetaria 1-** Esan duzu oinak airean izateak edo behintzat oinak sandaliek libre-libre eramateak onurak izan badituela bizkarrarentzat eta geuretzak ere bai. Eta zer, ze onura gehiago?

**Kontxi Garmendia-** Beno, nire ustez azkenean gorputz osoak arnasa hartu behar du eta oinak( oinek) arnas hori hartu behar dute ere. Ikusten da, ba izerdi, izerdi-arazoa ez daukazula orduan, eta onddoen, " pie de atleta" gauza horiek askoz geyo( gehiago), gutxiagotzen dira, ez? Arazo horiek ez dituzu izaten normalean eta beno... Gero e, erabiltzen baldin badezu( badituzu) txankleta batzuk egokiak, oina eta ba ohitzen da... ba pausua nolabait era naturalagoan ematean( ematera) zapata bat potoloa eramaten baduzu baino, eta orduan ba hori, ba gure bizkarra pixka bat zuzentzen da, aurkitzen duzu zure "ejea" ( ardatza), zure zentroa, eta errazago da, nolabait, zuzen mantentzea, ez?

**Kazetaria-** Zuk esan duzu sandaliarik egokienak direla txorkatilerak (orkatilerak) lotzen diren horiek, ez?

**Kontxi Garmendia-** Bai. Eske azkenean pixka bat da, e oina oso eroso joan behar da. Azkenean txankleta joaten da, oina erlaxatu gabe, joaten da nolabait heltzen, txankleta ez joateko dispartuta, ez? Eta orduan ez da erlaxatzen guztiz oina.

**Kazetaria-** Ba Kontxi Garmendia, fisioterapeuta, eskerrik asko eta gozatu e, guretzat sandalia- sasoia dena, eta zuretzat ba, hanka- hutsik ibiltzeko beste denboraldi at gehiago.

.



# A2.1 MAILA

---

## ENTZUMENAREN ULERMENA

### EGITEKOA: Audio osoa entzun ondoren, egiak eta gezurrak identifikatu.

1. Kontxi sandaliek in ibiltzen da, eta baita oinutsik ere.
  - Egia
  - Gezurra
2. Kontxik batzuetan zapata itxiak ere janzen ditu.
  - Egia
  - Gezurra
3. Kirola egiteko zapatila bereziak janzen ditu.
  - Egia
  - Gezurra
4. Oinak sandalietan libre-libre ibiltzea ona da bizkarrarentzat
  - Egia
  - Gezurra
5. Sandaliak izerdi- arazoentzat ez dira egokiak
  - Egia
  - Gezurra
6. Garrantzitsua da txankleta egokiak janzea pausu naturalagoa emateko
  - Egia
  - Gezurra
7. Orkatilara lotzen diren sandaliak dira egokiak, oina erlaxatuta joateko
  - Egia
  - Gezurra

## ENTZUMENAREN ERANTZUNAK

1. Egia

2. Egia

3. Gezurra

4. Egia

5. Gezurra

6. Egia

7. Egia

# Baldintza erreala: osatu esaldiak

Gogoratzen dituzu audioan agertu diren egitura hauek? Orain horiek landuko dituzu. Irakurri beheko esaldiak eta azalpenak, eta ondoren, esaldi hauek osatu, erantzun egokia aukeratuta.

<b>Baldintza erreala: -T(z)EN BA+ ONDORIOA</b>	<b>Adibideak</b>
<p>Baldintza osatzeko, <b>BA-</b> edo <b>BALDIN BA-</b> jartzen dugu aditz laguntzailearen aurretik( aditz konposatuetan) eta aditz nagusiak – <b>T(Z)EN</b> hartzen du.</p> <p><b>Ondorioan, erreparatu aditz-aspektuari:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- <u>Ohiturazkoa</u>. Ekintza maiztasun batekin (normalean, beti, egunero...) errepikatzen dela adierazten du.</li><li>- <u>Aditza geroaldian</u>. Etorkizunean zer gertatuko den iragartzeko erabiltzen dugu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Nik urte osoan, posible <b>BALDIN</b> Badut, sandaliak erabil<b>TZEN</b> ditut.</li><li>- Hotz handia egiten <b>BA</b>du, botak edo zapatak jan<b>TEN</b> ditut.</li><li>- Hondartzara joaten <b>BA</b>naiz, askotan txankletak jan<b>TEN</b> ditut.</li><li>- Sandaliak janzen <b>BA</b>dituzu, oinak freskoago ibili<b>KO</b> dituzu.</li><li>- Zapatila onak erosten <b>BA</b>ditut, erosoago sentitu<b>KO</b> naiz.</li></ul>

## Osatu esaldi hauek.

1. Bihar eguraldi hobea \_\_\_\_\_, txankleta berriak jantziko ditugu.
2. Neguan mendira joaten bagara, bota onak eta sendoak \_\_\_\_\_
3. Kuadrillakoak Pirineoetara \_\_\_\_\_, Gabarditoko aterpetxean bazkaltzen dugu.
4. Hemendik aurrera txankleta egokiak \_\_\_\_\_, bizkarra zuzenago \_\_\_\_\_.
5. Korrika egiteko zapatila hauek \_\_\_\_\_, oso eroso ibiltzen naiz.
6. Hondartzara joaten naizenean oinutsik \_\_\_\_\_, gauean, oso nekatuta \_\_\_\_\_.
7. Kontuz ibili! Orain oinetako horiek \_\_\_\_\_, gero hankako minez ibiliko zara.